

Idatzi honen bidez jakinarazten dizut Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran (akta onartzeko dago), honako hau erabaki zuela, 2019ko ekainaren 20ko 0773 Dekretuaren bidez Alkatetzak emandako eskumenaz baliatuta:

“GARRAIO PUBLIKOKO TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMAREN HITZARMENAK

Espedientea: 2021U9890002

2012ko otsailaren 20an, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN GARRAIO PUBLIKO KOLEKTIBOAN TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMA EZARTZEKO LANKIDETZAKO PROTOKOLO OROKORRA sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak, Irungo Udalak, Errenteriako Udalak, Eusko Trenbideak–Ferrocarriles Vascos SA sozietateak, Renfe-Operadora enpresa-erakunde publikoak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak. Protokolo horren arabera, sinatzaileetako bakoitzak konpromisoa hartu zuen, bere eskumen eta jardueren barruan, Gipuzkoako lurralde historikoan garraio publiko kolektiboan Tarifaren Integrazioako Sistemaren ezarpena bultzatzeko.

Tarifaren integrazioarekin ondorengo helburuak lortu nahi ziren: ekarpenak egitea Gipuzkoako garraio publiko kolektiboa erabiltzaileentzat sistema erakargarriagoa izan dadin, tarifa-sistema ulerterraza eta erabiltzaileek onartutako printzipioetan oinarritutakoa ezartzea eta garraio publiko kolektiboko sistema sare integratu baten moduan ulertu eta ikustea; eta hori guztia, batez ere, xede batera bideratuta, eta da, mugikortasun jasangarriagoa eta ibilgailu pribatuarekiko ez hain mendekoa sustatzea.

Protokoloa sinatu zenetik, bertan sartutako erakundeak tarifaren integrazioako sistema diseinatzen aritu dira. Hala, gaur egun jarrita dagoen tarifaren integrazioako sistema txartel bakarrarena da. Txartel horrek aukera ematen dio erabiltzaileari sisteman sartutako edozein operadoretan bidaiatzeko.

Udalbatzarrak, 2013ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, aho batez onartu zuen ontzat ematea erakundera sartzeko jarritako baldintzak –hain zuzen ere, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak 2012ko martxoaren 26ko eta 2013ko otsailaren 14ko bilkuretako akordioetan erabakitakoak –, eta bere Estatutuak onartzea.

Era berean, 2013ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Udalbatzak honako bi lankidetzahitzarmen hauek onartu zituen:

- Gipuzkoako lurralde historikoan garraio publiko kolektiboan tarifaren integrazioako sistema ezartzeko lankidetzahitzarmena.
- ZARAUZKO HIRUBUSA SLk emandako Zarauzko bidaiarien hiri-garraio publikoko zerbitzuan tarifaren integrazioako sistema ezartzeko lankidetzahitzarmena.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriak esaten du edozein Administrazio Publikok sinatutako indarreko hitzarmenak legean aurreikusitakoari egokitu behar zaizkiola.

Garraioaren Lurralde Agintaritzak aurreko bi hitzarmenak bidali dizkio Udal honi, indarreko legediari egokituta.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 21. s) artikuluan, alkate-udalburuari esleitzen dio lege hori indarrean sartu aurretik Udaleko osoko bilkurak zuen hondar-eskumena; beraz, txosten honetan aipatzen diren hitzarmenak onartzeko eskumena alkatetzari dagokio, eskumen propio gisa.

Azkenik, 2019ko ekainaren 20ko 0773 Dekretuaren bidez, Alkatetzak eskumen hori delegatuta dauka Tokiko Gobernu Batzarrean.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez

ERABAKI DU

Lehena.- Ondorengo lankidetzak-hitzarmenak sinatzea:

- Gipuzkoako lurralde historikoko garraio publiko kolektiboan tarifen integrazioko sistema ezartzeko hitzarmena.
- ZARAUZKO HIRUBUSA SLk emandako Zarauzko bidaiarien hiri-garraio publikoan tarifen integrazioko sistema ezartzeko hitzarmena.

Bigarrena.- Alkate-batzarburuari ahalmena ematea hitzarmen horiek sinatzeko.

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUAN TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMAREN HITZARMENA

Donostian, 2021ekoaren ..ean

BILDUA:

Alde batetik, Xabier Txurruka Fernandez jauna, Alkate moduan, ZARAUZKO UDALAREN izenean eta bere ordezkari gisa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.s) artikuluan jasotako eskumenaren arabera esku hartu du, eta, ondorio horietarako, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko (e) (a) n egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez bereziki ahaldunduta dago.

Eta, beste aldetik, Rafaela Romero Pozo andrea Lehendakari moduan, GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN (aurrerantzean, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren) izenean eta bere ordezkari gisa.

2021eko otsailaren 4an ospatutako Batzar Orokorrak hartutako akordioaren bati esker ondorio hauetarako bereziki gaitua izan ondoren hartzen du parte.

Alderdi parte-hartzaileek Hitzarmen hau sinatzeko adina gaitasun legal onartzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

ADIERAZTEN DUTE:

I. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak, Irungo Udalak, Erretereriako Udalak, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos Sak, Renfe-Operadora Enpresa Erakunde
Kontsulta edo argibide gehiagorako: UDALTZAINGOA Tel. 943 00 51 15 – luz. 3202
Para consultas o aclaraciones: POLICIA MUNICIPAL Tel. 943 00 51 15 – ext. 3202



Publikoak eta Garraioaren Lurralde Agintaritzak, 2012ko abenduaren 20an, "Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio publiko kolektiboan Tarifen Integrazioko Sistema ezartzeko lankidetzako protokolo orokorra" (aurrerantzean, Protokoloa) sinatu zuten. Protokolo horren arabera, sinatzaileetako bakoitzak bere eskumen eta jardueren barruan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio publiko kolektiboan Tarifen Integrazioko Sistemaren ezarpena bultzatzeko konpromisoa hartu zuten.

Protokoloak, sistema horren ezarpena bultzatzeko, lankidetzako esparru edo marko orokorra ezarri zuen, ondorengo puntuetan zentratuz:

- a. sisteman integratuak dauden garraio-modu guztientzat ordainketa-modu bakar eta bateratua erabiltzea;
- b. zonakatze komun bat garraio-modu guztientzat; horri esker erabiltzaileak zonaka eta zona-jauzika egindako garraioa ordaintzea.
- c. garraio-titulu komunak, sisteman integratutako garraio-modu guztientzat;
- d. hilabete naturalean egindako bidaia-kopuruen arabera mailakatutako deskontuak ezartzea tarifen gain, edozein dela ere bidaiatzeko aukeratutako garraio-modua;
- e. operadore eta garraio-modu desberdinen arteko garraio-aldaketen erregimena finkatzea, erabiltzailearentzako abantailazko baldintzetan; eta
- f. Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio-modu guztietan integratutako kolektibo edo giza taldeak finkatzea, garraio-modu guztietan gizarte-politika komunak ezarriz.

II. Tarifen integrazioarekin lortu nahi diren helburuak, aurrez Protokoloan jasoak izan direnak, ondorengoak dira: (i) bere ekarpena egitea Gipuzkoako garraio publiko kolektiboa erabiltzaileentzat sistema erakargarriagoa izan dadin, (ii) erraz ulertzeko moduko tarifen sistema bat ezartzea, erabiltzaileek onartutako printzipioetan oinarritua betiere eta (iii) garraio publiko kolektiboko sistema sare integratu baten moduan ulertu eta ikustea, jasangarriagoa eta ibilgailu pribatuarekiko ez hain mendekoa litzatekeen mugikortasuna sustatzera bideratua hori guztia.

III. Protokoloa sinatu zen datatik hona iragan den denbora horretan, Garraioaren Lurralde Agintaritzak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio publiko kolektiboaren arloan eskumenak dituzten Administrazio Publiko kontsultatutakoak, aipatu Agintaritzaren Tarifak Integratzeko Batzordearen bitartez, tarifak integartzeko sistemaren diseinuan aritu direla lanean.

Aipatu Batzordeak hartutako erabakietatik tarifak integartzeko sistemaren eredu berri eta solidarioa garatu da, sistemak berak lortutako diru-sarrerak banatzeko sistema batean.

Proposatutako sistema LURRALDEBUS, S.L. elkarteak arrakasta osoz garatutako txartel bakarraren eredu eta oinarri teknologikotik abiatzen da, gaur egun dauzkagun azpiegitura eta ekipamenduak aprobetxatuz eta baliatuz.

Tarifak integartzeko sistema 2013ko martxoaren 4an jarri zen abian, eta txartel bakarraren gainean oinarritzen da. Txartel horrek aukera ematen dio erabiltzaileari sistemari atxikitako edozein operadorean bidaiatzeko, eta, horren bidez, lortutako diru-sarrerak banatzen dira, eta hori guztia zonakatze komunaren arabera, tarifen sistema integratuaren arabera, integratutako tarifen, bertan integratutako giza talde berezien eta garraio-aldaketen politika hobarrituen arabera ere.

Herritarren eskura jarritako tarifa-integrazioko sistemaren euskarria txartel fisikoa edo birtuala, adimendun eta pertsonalizatua da, hainbat garraio bidetan kontakturik izan gabe balioztatzen dena, eta titularrak erabili aurretik berriz kargatuz berrerabiltzen dena. Garraioaren Lurralde Agintaritzak txartel bakarraren erabiltzaileek egindako birkargetatik ateratzen diren saldoen gordailuzaina da.

Txartel bakarrak izaera bikoitza du: alde batetik, dagokion garraio-zerbitzuaren ordainbide gisa balioko du; eta, beste alde batetik, garraio-titulu bezala erabilera du, erabiltzaileak txartel bakarra kasu bakoitzean dagokion operadorean balioztatzen duen unean bertan.

IV. Tarifak integartzeko sistema arrakastaz ezarri da, eta heldutasun eta egonkortasun fidagarria garatu du zazpi urteko ezarpenean. Hori guztia Tarifa-integrazioaren jarraipena egiteko Jarraipen batzordeetan erabat garatzeko eskatu diren eta Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Nagusian onartu diren bilakaera eta zehaztapenak antolatuz.

V. Tarifak integartzeko sistema administrazio publikoetan eta operadoreetan ezartzeak duen eragin ekonomikoari dagokionez, Protokoloan xedatu zen alderdiek konpromisoa hartuko zutelara hura ezartzeak Administrazio Publikoetara eta protokoloan ordetzatutako gainerako erakundeei lotutako garraio-operadoreen aurreko egoeran izango lukeen eragina aztertzeko, egoera integratu batean eta izan ere, ez desorekarik sortzeko aipatutako artean.



Horri dagokionez, arestian aipatutako Tarifak Integratzeko Batzordeak tarifak integratzeko sistemaren ezarpena artikulatu du, administrazio publikoentzat eta/edo operadoreentzat neutraltasun ekonomikoaren printzipio baten arabera, sistema ezarri aurreko egoerari dagokionez. Halaber, konpentsazio-sisteman bidezkoak izan diren doikuntza-mekanismoak zehaztea proposatu du, erreferentziatzen hartutako zerbitzuaren inguruabarrak aldatzen diren kasuetan. aldatuko liratekeen kasuetan.

Garraioaren Lurralde Agintaritzak tarifak integratzeko sistema doitu du, eta hurrengo urteko tarifak aldatuko ditu, administrazio publikoei eta/edo operadore parte-hartzaileei dagokienez, arestian aipatutako neutraltasun ekonomikoaren printzipioa betetzen ez den kasuetan.

- VI. Testuinguru horretan, Zarauzko Udalak egikaritzen ditu, Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako legeriak ezarritako baldintzetan, hiriko ibilgailuen eta pertsonen trafikoa antolatzeko eskumenak eta baita hiriko bidaiarien garraio publikoko eskumenak ere, Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikuluan, b) eta l) letretan ezarritakoaren bidetik.

ZARAUZKO HIRUBUSA SL da Zarauzko Udalaren bidaiarien hiri-garraio publikoaren zerbitzuaren egungo sozietate emakida duena.

- VII. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Donostiako Udalak, Irungo Udalak, Errenteriako Udalak, Eibarko Udalak, Arrasateko Udalak, Zarauzko Udalak, Hernaniko Udalak, Lasarte-Oriako Udalak eta Oiartzungo Udalak parte hartzen dute Garraioaren Lurralde Agintaritzaren partzuergoan, eta Tolosako eta Oñatiko Udalak sartzeko prozesuan daude. Partzuergoak besteak beste, helburu hauek ditu:

- Gipuzkoan garraioko azpiegituren eta zerbitzuen eremuan Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren osatzen duten erakundearen arteko koordinazioa eta lankidetzaren artikulatzea.
- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren osatzen duten erakundearen eta garraioaren eremuko beste erakundearen eta operadorearen arteko koordinazioa eta lankidetzaren artikulatzea, entitateko kide izan gabe ere Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio-zerbitzuen eta azpiegituren titularrak edo operadoreak direnekin.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio-zerbitzuen eta azpiegituren arloan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren osatzen duten erakundearen eskumenekoak diren jardueren-mota guztiak kudeatzea. Ondorio horietarako, kasu bakoitzean aplikatzeko modukoa den tresna juridikoa erabilita, beharrezkoa izango da (i) esleipenak, transferentziak edo eskumen-eskuordetzeak izatea, edo (ii) kasu bakoitzari dagozkion kudeaketa ardurak ematea.

Beste alde batetik, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren egitekoen artean ondorengoak aipa daitezke:

- Tarifaren sistema integratua, txartel bakarra barne, zehaztea eta sistema horren ezarpena eta garapena bultzatzea.
- Gipuzkoan garraio-zerbitzuaren titularrak diren Administrazioen tarifa propioen gaineko ahalmenen erabilera koordinatzea.

- VIII. (i) aldeek dituzten eskumenen arabera, eta (ii) Zarauzko bidaiarien hiri-garraio publikoaren tarifak integratzeko sistema ezartzeak duen eraginaren arabera, arlo horretan koordinazioa eta lankidetzaren ekonomiko, tekniko eta administratiborako beharra sortzen da Zarauzko Udalaren eta Garraioaren Lurralde Agintaritzaren artean, eta hitzarmen honetan arautu nahi da, funtsezko elementuetan.

- IX. Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboaren arloan eskumenak dituzten Administrazio Publiko kontsortziatu guztiekin hitzarmen honen antzekoak sinatzen saiatzen ari da Garraioaren Lurralde Agintaritzaren zuzenean edo zeharka, azken kasu horretan bere erakunde instrumentalen bitartez.

- X. Azaldutako arrazoiak kontuan hartuta, eta esku hartzen duten alderdiek horretarako egindako bileren ondoren, Zarauzko Udalak eta Garraioaren Lurralde Agintaritzaren interesa dutela Zarauzko bidaiarien hiri-garraio publikoaren tarifak integratzeko sistema arautzen duten baldintzak berritzeko, eta, horretarako, azaldutako helburuak betetzeko, Administrazio Publiko horiek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. eta hurrengoetan artikuluan xedatutakoaren arabera, adostasunez hitzarmen hau formalizatzen dute, hurrengo estipulazioen arabera,

ESTIPULAZIOAK:

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea

Kontsulta edo argibide gehiagorako:
Para consultas o aclaraciones:

UDALTZAINGOA
POLICIA MUNICIPAL

Tel. 943 00 51 15 – luz. 3202
Tel. 943 00 51 15 – ext. 3202



Zarauzko Udalak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Hitzarmen honen azalpeneko zatian deskribatutako bidaiarien hiriko garraio publikoan tarifak integratzeko sistema ezartzea erabaki zuten 2014ko martxoaren 14ko hitzarmenean jasotako termino eta baldintzen arabera eta hitzarmen hori honela berritzea erabaki dute.

Hori horrela izanik, alderdiak tarifak integratzeko sistema eraginkortasunez kudeatzeko beharrezkoak diren ahaleginak egitera behartzen dira, eta, horretarako, sistema horrekin jarraitzeko eta hobetzeko beharrezkoak diren barneko eta kanpoko jarduketak egingo dituzte

Hitzarmenak funtsezko osagaiak arautzen ditu, tarifak integratzeko sistemaren oinarritzko zehaztapenak finkatzen dituen aldetik eta, beraz, ezarpen osoari aplikatuko zaio, oinarritzko izaerarekin.

Aurreko III. Azalpenean adierazitako alderdien azken zehaztapenak eta ondorengo garapenak egingo ditu Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrak, modu loteslean, Zarauzko Udalari entzunaldia eman ondoren.

BIGARRENA.- Zarauzko bidaiarien hiri-garraio publikoan tarifak integratzeko sistema onartzea

Zarauzko Udalak txartel bakarra onartuko du Zarautzen eskaintzen duen hiri-garraio publikoaren zerbitzuan, hurrengo termino eta baldintzetan:

- Zarauzko Udala jarraituko du izaten bidaiarien hiriko garraio publikoko zerbitzuaren eskumenaren erabateko titularra, eta dagozkion ahalmen eta gaitasun guztiak egikaritu ahal izango ditu eskumen horren gain eta, beraz, egoki irizten dion titulu propioak sortu eta horiei eutsi ahal izango die.
- Zarauzko bidaiarien hiri-garraio publikoan txartel bakarra erabiltzeak ez du inolako aldaketarik eragingo bidaiarien hiri-garraio publikoaren zerbitzuaren titulartasunean, eta, nolana ere, Zarauzko Udalaren egungo operadoreak ematen duela ulertuko da. Ondorioz, garraio-kontratua operadorearen eta erabiltzaile horren artean formalizatuko da, eta kontratu horretatik eratorritako harremana aplikatzeko modukoa den araudiak erregulatuko du, hurrengo gidoian xedatutakoari kalterik egin gabe.
- Erabiltzaileek txartel bakarra erabiltzeko terminoak eta baldintzak, Zarauzko bidaiarien hiri-garraio publikoan ordainbide baliodun gisa, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrean onartutako baldintza orokorren arabera arautuko dira, Zarauzko Udala entzun ondoren. Baldintza horiek komunak izango dira tarifak integratzeko sistema ezartzea erabakitzen duten Administrazio Publiko guztientzat.
- Horren ondorioz, erabiltzailearen eta Garraioaren Lurralde Agintaritzaren arteko erlazioa, ordaintzeko bide bezala txartel bakarra erabiltzeari dagokionez, aipatutako baldintza orokor horien bidez arautzen da; eta erabiltzailearen eta egungo operadoreen arteko erlazioa, berriz, garraio-zerbitzu publikoa emateak berak sortzen duen erlazioa alegia (bestela esanda, egungo operadoreen zerbitzuetan garraio-zerbitzu publiko moduan txartel bakarra erabiltzetik sortzen dena), Zarauzko bidaiarien hiri-garraio publikoan aplikatzeko modukoa den araudiaren bidez erabakiko da.
- Zarauzko hiri-garraio publikoko zerbitzuak ematen duen operadoreak jasoko du Garraioaren Lurralde Agintaritzak Zarauzko bidaiarien hiri-garraio publikoaren zerbitzua erabiltzeagatik lortzen dituen diru-sarrerak, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrak Hitzarmenaren III. azalpenean zehaztutako tarifa-integratutako sistemaren esparruan zehazten dituen arauen arabera.

HIRUGARRENA.- Tarifak integratzeko sistemaren funtsezko baldintzak

III. Azalpenean adierazten den bezala, tarifak integratzeko sistema txartel bakarraren gainean oinarritzen da, sistemara atxikia dagoen edozein operadoretan bidaiatzeko aukera emanez txartelaren erabiltzaileari; eta txartelaren erabilerak lortutako diru-sarreraren banaketa ekarriko du, horrela tokatuz gero, zonakatze komunaren, tarifen sistema integratuaren, integratutako tarifen, bertan integratutako giza talde berezien eta garraio-aldaketen politika hobarrituen arabera betiere.

Hori horrela izanik, Garraioaren Lurralde Agintaritzak, Zarauzko Udalari entzunaldia eman ondoren, tarifak integratzeko sistema zehazten du, eta zehazkiago esateko hurrengo puntuak finkatu ditu: zonakatze komuna, tarifen sistema integratua, integratutako tarifak, bertan integratutako giza talde bereziak eta garraio-aldaketen politika hobarrituak, eta baita sistemak lortutako diru-sarrerak operadoreei banatzeko sistema.

Arestian aipatutako tarifak integratzeko sistemaren puntuak zehazterakoan, Garraioaren Lurralde Agintaritzak errespetatu egiten du Zarauzko Udalarentzat eta bere operadorearentzat tarifak integratzeko sistemaren ezarpena inspiratzen duen neutraltasun ekonomikoaren printzipioa.

Edonola izanik ere, Garraioaren Lurralde Agintaritzak azken finean onartutako tarifak integratzeko sistemaren zehaztapenetan aldaketak egiten ditu, tarifak aldatuz, baldin eta Zarauzko eta/edo bere operadorari begira Estipulazio honetan aurreikusten den neutraltasun ekonomikoko printzipioa betetzen ez bada.

Behin eta berriz aipatutako neutraltasun ekonomikoko printzipioak zera esan nahi du: Garraioaren Lurralde Agintaritzak tarifa integratuen sistema berrikusi eta doitu egingo duela garraio operadoreetakoren bat diru-sarreraren murrizketan erortzen den kasuetan, sistema ezarri zen dataren aurreko urtean lortutako sarrerekin alderatuz, baldin eta diru-sarrera txikiagoak tarifak integratzeko sistemaren ezarpenari egozteko modukoak badira. Eta xede horrekin, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren tarifak integratzeko batzordeak 6 hilean behin aztertuko ditu sistemaren ibilbidea eta emaitzen progresioa, behar izanez gero neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.

LAUGARRENA.-Txartel bakarraren alderdi juridiko-ekonomikoak

Dagokion garraio-zerbitzua ematen duten operadoreek kreditu-eskubideak dituzte, txartel bakarraren erabiltzaileek beren ibilgailuetan egiten dituzten balioztatzeen ondorioz Garraioaren Lurralde Agintaritzan gordailututako saldoen ganean.

Adierazitako kreditu-eskubide horien zenbatekoaren zehaztapena Garraioaren Lurralde Agintaritzak egingo du, aplikatzeko modukoak diren tarifa, deskontu eta garraio-aldaketagatiko hobarien arabera.

Kreditu-eskubide horien likidazioa aldi-aldi egiaztatzen du Garraioaren Lurralde Agintaritzak, geroago, hau da, txartel bakarraren erabiltzaileek egindako balioztatze guztiak kontabilizatu ondoren, betiere Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrek zehazten duen likidazio- eta konpentsazio-sistemaren arabera.

Garraioaren Lurralde Agintaritzak saiatuko da garraio operadore desberdinek bidaiarien garraio erregularreko emakidek ezarritako trafiko-debekuak bete ditzaten, eta horrela tokatuz gero, horiek konpentsatzeko mekanismoak proposatzen ditu.

BOSGARRENA.-Txartel bakarraren kudeaketa

Txartel bakarra modu zentralizatuan kudeatzen du Garraioaren Lurralde Agintaritzak, eta hari dagokio txartel hori igortzea eta banatzea, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Nagusiak zehazten dituen baldintzetan; horien artean daude, informazio gisa soilik, Agintaritzak horrek bete beharreko eginkizun hauek:

- Ukipenik gabeko txartel fisikoen edo birtualen hornidura eta salmenta.
- Txartel bakarraren erabiltzaileek saldoak kargatzeko mekanismoak antolatzea
- Ustiapenari buruzko informazioa, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren kudeaketako zentroaren koordinaziopean, eta diru-sarreraren, aurrerakinen eta dagokien konpentsazioen aldizkako aitorpenak egitea.
- Kasua izanez gero, txartel bakarraren erabilerari dagokionez, kontrolak eta auditoretzak egitea.
- Herritarrei arreta eskaintzea, txartel bakarraren inguruan.

SEIGARRENA.-Bidaiarien Garraioko Zerbitzu Publikoaren araudi erregulazilea harmonizatzea

Aldeek konpromisoa hartzen dute bidaiarien errepideko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzearen erregelamenduan jasotako aurreikuspenak betetzeko, Garraioaren Lurralde Agintaritzan sartutako Gipuzkoako administrazioen esparruan, eta beren beharren arabera, beren arau-berezitasunetara egokitzeke.

ZAZPIGARRENA.-Finantzaketa

Garraioaren Lurralde Agintaritzak tarifak integratzeko sistemaren kudeaketa egokirako behar duen finantzaketa Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Estatutuaren aurreikusitako mekanismoen bidez lortuko da.

ZORTZIGARRENA.- Elkarri datuen berri emateko, konfidentzialtasuneko eta datu pertsonalak babesteko obligazioa

Alderdiek hitzartzen dute egoki irizten dioten informazio guztia une oro eskainiko diotela elkarri, tarifak integratzeko sistemaren ezarpen osoa eta arrakastatsua lortzeko.

Hitzarmena gauzatzeko alderdiek partekatutako informazio eta/edo dokumentazio guztia, eta baita informazio horretatik sortutako beste edozein dokumentazio ere informazio konfidentzialtzat joko da, eta horrexegatik, Estipulazio honetan xedatutakoaren arabera, informazio konfidentzial hori espresuki baimenduak geratzen direnez kanpoko inolako pertsona edo erakunderi ez transmititzeko konpromisoa hartzen dute alderdiek, salbu alderdietakoren bati legez eskatutako balitzaio, edo informazio konfidentzial hori osorik edo zati batean ematera legez behartua ez badago.

Hitzarmen honetatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko beren parte-hartze pertsonala edo profesionala ezinbestekoa den pertsonari soilik jakinarazi ahal izango zaie informazio konfidentziala, eta baita beren aholkularitzako zerbitzu profesionalak Hitzarmenaren edukiaren inguruan ematen dituzten beste haiei ere.

Estipulazio honetan informazio konfidentzialaren inguruan emandako xedapenak ezingo dira aplikatu hurrengo kasu hauetan: (i) informazio hori edo informazioaren zati batzuk jendartera iristeko iturria alderdiez bestelakoa izatea; (ii) alderdietakoren batengana modu ez-konfidentzian iristea, informazio konfidentzial hori emateko debekurik ez duen iturriaz bestelako iturri baten eskutik; edo (iii) alderdietakoren baten, bere aholkulari profesionalen, edo bere ordezkarien eskuetan egotea Hitzarmen hau sinatu baino lehenago.

Edonola izanik ere, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa eta hori garatzeko arauditik sortutako obligazioak betetzeko beharra daukate aldeek, Hitzarmenak eta/edo horren babesean hartzen diren akordioek indarrean dirauten bitartean, aldeetako bakoitzak bere jarduerak aurrera eramaterakoan bere kabuz eta erabakiz izaera pertsonaleko datuak tratatzen dituen edozein kasutan, datuen tratamendu horren arduraduna den heinean.

Nolanahi ere, aldeek nahitaez bete beharko dituzte Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikotik eratorritako betebeharrak, bai eta aurrerantzean ere (DBLO-EDB) eta horiek garatzeko arauditik eratorritakoak ere, hitzarmena eta/edo hitzarmenaren babesean hartzen diren akordioak indarrean dauden bitartean, bakoitzak bere esparruan gauzaten dituen datu pertsonalen edozein tratamenduren ondorioz. Nork bere jarduerak eta bere kabuz eta bere erabakiz, arduradun gisa

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmenaren Jarraipeneko Batzordea

Alderdiek adosten dute Jarraipen Batzorde baten esku uztea Hitzarmena betetzen dela egiaztatzeko jarraipena egiteko lana. Batzorde horren osaera, Partzuegoaren Estatutuen 16. artikuluan horretarako ezarritako baldintzak kontuan hartuta, GGLAren Batzar Nagusiak erabaki zuen, 2019ko ekainaren 14an egindako bilkuran.

Horretarako, Hitzarmen honen Jarraipen-Batzordea, Zarauzko Udalaren bi kidek eta Garraioaren Lurralde Agintaritzaren bi kidek osatua (ordezkari bat Eusko Jaurlaritzaren aldetik eta beste bat Gipuzkoako Forua Aldundiaren aldetik, honako hauetak arduratuko dena:

- a) Hitzarmena betetzen dela zaintzea, hitzarmenaren interpretazioan, betetzean eta gauzatzean sor daitezkeen zalantzak konponduz;
- b) tarifak integratzeko sistemaren ezarpenaren eboluzioa, garapena eta betearazpena aztertzea, eta aipatu sistema horren ezarpena zuzena eta arrakastatsua izan dadin Hitzarmenean beharrezkoak diren aldaketak proposatzea bere ordezkariari, HAMABIGARREN Estipulazioan aurreikusitakoaren arabera; eta
- c) alderdien artean Hitzarmenaren inguruan sor daitezkeen gatazkak konpontzeko bideak proposatzea.

Batzorde hau osatzen dutenek erabakitzeke eta gauzak betearazteko behar adina gaitasun edukiko dute, bakoitzak ordezkatzeko duen erakundearen barruan. Aurrekoa gorabehera, eta Batzorde horrek jorratu beharreko gaien espezifikotasunaren arabera, kasu bakoitzean aztertzen den gaian adituak eta profesional espezializatuak ere sartu ahal izango dira batzordean; aditu horiek hitza izango dute baina botorik ez.

Jarraipeneko Batzordea bere kideetako edozeinek gainerakoei egindako deialdiaren bitartez bilduko da, aipatu kide horiek proposatzen dituzten gaiak jorratu eta aztertzeko.

Jarraipeneko Batzordearen bilera-deialdiaren eta bilera egiten den egunaren artean bost (5) egun natural utzi beharko dira gutxienez.

Jarraipeneko Batzordearen deialdiak era hauetan egin ahal izango dira: (i) deialdiak eskura emanez, edo bestela (ii) jaso izanaren agiria duen gutun ziurtatua bidaliz alderdiek adierazitako helbidera, edo baita (iii) alderdi bakoitzak adierazitako helbide elektronikora mezu elektronikoko bat bidali eta jaso izana adierazten duen beste mezu elektronikoko edo harrera-mezu bat eskuratuz.

Jarraipeneko Batzordea osatzen dutenak edozein unetan ordeztu ahal izango dira, beste alderdiari aldaketa horren berri Zarauzko Udalaren edo Garraioaren Lurralde Agintaritzaren ordezkari izendatu berriak parte hartuko lukeen lehen bilera baino lehen emanez betiere.

Jarraipen Batzordea balio osoz eratzeko, beharrezkoa izango da Jarraipen Batzordeko kideen erdia baino gehiago bertaratzea, bertaratuta edo behar bezala ordezkaturik, eta, nolanahi ere, Zarauzko Udaleko kide bat gutxienez.

Jarraipeneko Batzordearen erabakiak bileran presente edo ordezkaturik dauden kideen gehiengoz hartu beharko dira beti.

Saio bakoitzaren bukaeran, Jarraipeneko Batzordeak akta jaso ahal izango du, bere kideetako edozeinek horrela eskatuta.

HAMARGARRENA.-Hitzarmena indarrean sartzea eta horren iraupena

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 4 urteko iraupena izango du, beste lau urtez luzatu ahal izango da, aldeek idatziz adostu ondoren.

Hitzarmenaren iraupena adostu arren, edozein alderdik indargabetu ahal izango du, baina beste alderdiari idatziz jakinarazi beharko dio, hitzarmena amaitzeko aurreikusitako eguna baino bi hilabete lehenago.

HAMAİKAGARRENA.- Prebalentzia

Alderdiek erabakitzen dute ezen Hitzarmenean xedatutakoa alderdiek elkarren artean edo beste Administrazio Publiko batzuekin sinatuta edukiko lituzketen eta Hitzarmen honetan xedatutakoaren kontra joango liratekeen gaiak dauzkaten lankidetzako tresna guztien gainetik gailenduko dela.

Era berean, Zarauzko Udalak konpromisoa hartzen du bere egungo operadoreari, bai eta etorkizunean izaera hori har dezakenari ere, bere jarduerari eragiten dioten betebeharrak, Hitzarmenean jasotakoak eta hitzarmenaren babesean sortutakoak, helarazteko beharrezkoak diren jarduketak egiteko.

HAMABIGARRENA.- Hitzarmena aldatzea

Hitzarmenaren aldaketa alderdiek adostuta egingo da, Jarraipen Batzordeak proposatuta. Horretarako, indarraldian formalizatutako aldaketa-gehigarria sinatuko da.

HAMAHIRUGARRENA.- Hitzarmena desegitea

Hitzarmena desegin ahal izango da:

- Indarraldia amaitu eta indarraldia luzatzea erabaki ez bada.
- Alderdiek aho batez hala erabakita.
- Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik
- Deuseztasuna deklaratzan duen erabaki judizialagatik.
- Alderdietako edozeinek egindako alde bakarreko salaketagatik; kasu horretan urtebeteko epea beharko da, gutxienez, Hitzarmena desegin eta aurreabisua bidaltzeko dataren artean;
- Alderdietako edozeinek formulatutako Hitzarmenaren salaketagatik, beste alderdiak hitzarmenean onartutako obligazioak ez dituela betetzen uste izateagatik, eta ez-betetze horrek beste alderdiari ekarriko lizkiokeen kalte eta galera guztien ordaina eman beharko dio betetzen ez duen aldeak;
- Garraioaren Lurralde Agintaritzatik Zarauzko Udala borondatez edo nahitaez kentzea; eta
- Garraioaren Lurralde Agintaritzaren desegiteagatik.

HAMALAU GARRENA.- Erregimen juridikoa

Hitzarmenak izaera administratiboa du, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako araubidea aplikatuko zaio.

Adierazitakoarekin ados daudela adierazteko, bertaratutakoek Lankidetzaren Hitzarmen hau sinatu dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako
Lehendakaria

Zarauzko Alkatea

Rafaela Romero Pozo

Xabier Txurruka Fernandez

ZARAUZKO UDALAREN OPERADOREAK ZARAUZKO HIRUBUSA SL EMANDAKO ZARAUZKO BIDAIARIEN HIRI-GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUAN TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMAREN-HITZARMENA

Donostian, 2021eko maiatzaren XXan

BILDUAK:

Alde batetik, D. FRANCISCO JAVIER RUIZ ALFARO, administratzaile bateratu gisa, ZARAUZKO HIRUBUSA SL izenean eta hura ordezkatzuz.

Beste alde batetik, Rafaela Romero Pozo, Lehendakari moduan, GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE-AGINTARITZAREN (aurrerantzean, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren) izenean eta bere ordezkari gisa.

2021eko otsailaren 4ko Batzar Orokorrak hartutako erabaki bati esker ondorio hauetarako bereziki gaitua izan ondoren hartzen du parte.

Eta, azkenik, Xabier Txurruka Fernandez jauna, alkate moduan, Zarauzko Udalaren izenean eta bere ordezkari gisa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.s) artikuluan jasotako eskumenaren arabera esku hartu du, eta, ondorio horietarako, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko (e) (a) n egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez bereziki ahaldunduta dago.

Alderdi parte-hartzaileek Hitzarmen hau sinatzeko adina gaitasun legal onartzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

ADIERAZTEN DUTE:

II. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak, Irungo Udalak, Errenteriako Udalak, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos Sak, Renfe-Operadora Enpresa Erakunde Publikoak eta Garraioaren Lurralde Agintaritzak, 2012ko otsailaren 20an, "Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio publiko kolektiboan Tarifan Integrazioko Sistema ezartzeko lankidetzako protokolo orokorra" (aurrerantzean, Protokoloa) sinatu zuten. Protokolo horren arabera, sinatzaileetako bakoitzak bere eskumen eta jardueren barruan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio publiko kolektiboan Tarifan Integrazioko Sistemaren ezarpena bultzatzeko konpromisoa hartu zuten.

Protokoloak, sistema horren ezarpena bultzatzeko, lankidetzako esparru edo marko orokorra ezarri zuen, ondorengo puntuetan zentratuz:

Protokoloak, sistema horren ezarpena bultzatzeko, lankidetzako esparru edo marko orokorra ezarri zuen, ondorengo puntuetan zentratuz:

a. sisteman integratuak dauden garraio-modu guztientzat ordainketa-modu bakar eta bateratua erabiltzea;



- b. zonakatze komun bat garraio-modu guztientzat; horri esker erabiltzaileak zonaka eta zona-jauzika egindako garraioa ordaintzea.
- c. garraio-titulu komunak, sisteman integratutako garraio-modu guztientzat;
- d. hilabete naturalean egindako bidaia-kopuruen arabera mailakatutako deskontuak ezartzea tarifen gain, edozein dela ere bidaiatzeko aukeratutako garraio-modua;
- e. operadore eta garraio-modu desberdinen arteko garraio-aldaketen erregimena finkatzea, erabiltzailearentzako abantailazko baldintzetan; eta
- f. Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio-modu guztietan integratutako kolektibo edo giza taldeak finkatzea, garraio-modu guztietan gizarte-politika komunak ezarriz.

II. Zarauzko Udalak eta Garraioaren Lurralde Agintaritzak gaurko datarekin sinatu dutela "GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN GARRAIO PUBLIKO KOLEKTIBOAN TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMA BERRITZEKO HITZARMENA", eta horren arabera zera hitzartu da:

- Zarauzko bidaiarien hiri-garraio publikoan tarifak integratzeko sistema jarraitzea. Sistema hori txartel bakarraren gain zentratua dago, eta sistemara atxikiak dauden garraio-zerbitzuetan bidaiatzeko aukera ematen dio txartel horren titularrari, horrela erabilerari horrekin lortutako diru-sarreraren banaketa sortuko da, eta hori guztia zonakatze komun baten arabera, tarifen sistema integratu baten arabera, tarifa integratuen, giza talde integratu berezien eta garraio-aldaketen politika hobaritu batzuen arabera.
- Tarifen integrazioa aurrez aipatutako hiri-garraio publikoan zer-nolako baldintzetan gertatzen den kudeatzea, eta baldintza horien artean hurrengoak nabarmendu daitezke:
 - (i) Garraioaren Lurralde Agintaritzaren txartel bakarra Zarauzko bidaiarien hiri-garraio publikoan onartua izango da.
 - (ii) Zarauzko Udala bidaiarien hiri-garraio publikoko zerbitzuaren eskumenaren erabateko titularra izaten jarraituko du, eta dagozkion gaitasun eta ahalmen guztiak egikaritu ditu funtzio horren gain eta, beraz, egokitzat jotzen dituen titulu propioak sortu eta horiei eutsi ahal izango die.
 - (iii) Zarauzko bidaiarien hiriko garraio publikoan txartel bakarra erabiltzeak ez du inolako aldaketarik ekarriko bidaiarien hiri-garraio publikoaren zerbitzuaren titulartasunean. Nolanahi ere zerbitzua Zarauzko Udalaren egungo operadoreak ematen duela ulertzen da. Horren ondorioz, garraio-kontratua elkarte horren eta erabiltzailearen artean formalizatua geratuko da kasu bakoitzean, eta kontratu horretatik aterako den erlazioa aplikatzeko modukoa den araudiak gobernatu eta eraenduko du.
 - (iv) Garraioaren Lurralde Agintaritzak Zarauzko bidaiarien hiri-garraio publikoko zerbitzua erabiltzeagatik lortuko dituen sarrerak ZARAUZKO HIRUBUSA SL operadoreak jasoko ditu, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrak tarifen integrazio-sistemaren esparruan erabakiko dituen arauen barruan.
- Garraioaren Lurralde Agintaritzak tarifak integratzeko sistema kudeatzen du, bereziki, zonakatze komuna, tarifa-sistema integratua, tarifa integratuak, kolektibo berezi integratuak eta hobaridun garraio-aldaketa politikak, baita sistemak ZARAUZKO HIRUBUSA SLri lortutako diru-sarrerak banatzeko sistema ere, Zarauzko Udalarentzat eta ZARAUZKO HIRUBUSA SLrentzako tarifak integratzeko sistema ezartzearen oinarri den neutraltasun ekonomikoaren printzipioa errespetatuz.
- Garraioaren Lurralde Agintaritzak doikuntza-mekanismoak aurreikustea, administrazio publiko parte-hartzaileek eta haien operadoreek emandako garraio publikoko zerbitzuak aldatzen diren kasuetan eta, beraz, neutraltasun ekonomikoaren printzipioa aplikatzeko onartutako erreferentziatzko datu ekonomikoak aldatzen diren kasuetan.



- Garraioaren Lurralde Agintaritzak modu zentralizatuan kudeatzea txartel bakarra, eta hari dagokio txartel hori igortzea eta banatzea, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Nagusiak zehaztutako baldintzetan; horien artean daude, informazio gisa soilik, Agintaritza horrek bete beharreko eginkizun hauek:
 - (i) Kontakturik gabeko txartel fisiko edo birtuala hornitzea eta saltzea
 - (ii) Txartel bakarraren erabiltzaileak saldoen errekargak egiteko mekanismoak gauzatu eta bideratzea.
 - (iii) Ustiapenari buruzko informazioa, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren kudeaketako zentroaren koordinaziopean, eta diru-sarreraren, aurrerakinen eta dagokien konpentsazioen aldizkako aitortpenak egitea.
 - (iv) Txartel bakarraren erabilerari dagokionez, kontrolak eta auditoretzak egitea.
 - (v) Herritarrei arreta eskaintzea, txartel bakarraren inguruan.

Oro har, tarifak integratzeko sistema garatzea, Garraioko Lurralde Agintaritzaren Batzar Nagusiak hartzen dituen erabakien bidez. Erabaki horiek Zarauzko Udalari lotuko zaizkio, eta, beraz, aipatutako Batzar Nagusiaren erabakietatik eratorritako eskubideak baliatu eta betebeharrak bete beharko ditu.

Garraioaren Lurralde Agintaritza azalpen honetan aipatutakoaren antzeko hitzarmenak izenpetzea sustatzen ari da, zuzenean edo zeharka, azken kasu horretan bere erakunde instrumentalaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboaren arloan eskumenak dituzten Administrazio publiko partzuergo guztiekin.

- III. Tarifen integrazioarekin lortu nahi diren helburuak, aurrez Protokoloan jasoak izan direnak, ondorengoak dira: (i) bere ekarpena egitea Gipuzkoako garraio publiko kolektiboa erabiltzaileentzat sistema erakargarriagoa izan dadin, (ii) erraz ulertzeko moduko tarifen sistema bat ezartzea, erabiltzaileek onartutako printzipioetan oinarritua betiere eta (iii) garraio publiko kolektiboko sistema sare integratu baten moduan ulertu eta ikustea, jasangarriagoa eta ibilgailu pribatuarekiko ez hain mendekoa litzatekeen mugikortasuna sustatzera bideratua hori guztia.
- IV. ZARAUZKO HIRUBUSA SL da Zarauzko Udalaren bidaiarien hiri-garraio publikoaren zerbitzuaren egungo sozietate emakida duena.
- V. Kontuan hartuta tarifak integratzeko sistemak ZARAUZKO HIRUBUSA SLren jarduerari eragiten diola eta hura Garraioaren Lurralde Agintaritzarekin erlazionatzen direla, alderdien interesa da ZARAUZKO HIRUBUSA SLk partaide egitea, haren jardueran egin beharreko egokitzapenak bat etor daitezen eta erabat egokitu daitezen Garraioaren Lurralde Agintaritzak tarifak integratzeko sistemari buruz onartzen dituen bilakaera eta garapenekin.

Bestalde, Zarauzko Udalak konpromisoa hartu du Garraioaren Lurralde Agintaritzarekin, II. azalpenean aipatzen den hitzarmenean, ZARAUZKO HIRUBUSA SLri bere jardueraren garapenari eragiten dioten betebeharrak, aipatutako hitzarmenean jasotakoak eta haren babesean sortutakoak, helarazteko beharrezkoak diren jarduketak egiteko.
- VI. Testuinguru horretan Zarauzko Udalaren parte-hartzea, funtsean, aurrez aipatutako alderdien artean hartzen diren erabakiak jasotze aldera egin da, batik bat, Zarauzko Udala bidaiarien hiri-garraio publikoaren zerbitzuaren eskumenaren titularra den administrazio publiko gisa.
- VII. Azaldutako arrazoiak kontuan hartuta, eta esku hartzen duten alderdiek horretarako egindako bileren ondoren, ZARAUZKO HIRUBUSA SLk eta Gipuzkoako Garraio Agintaritzak, Zarauzko Udalak onartuta, Zarauzko bidaiarien hiri-garraio publikoan tarifak integratzeko sistema arautzen duten baldintzak berritzeko interesa dutela, ZARAUZKO HIRUBUSA SLk emandako garraio publikoko zerbitzuari dagokionez, eta, horretarako, aipatutako helburuak bete eta formalizatzeko asmotan, alderdiek, ados jarrita, ondorengo Lankidetzako Hitzarmena sinatzen dute (aurrerantzean, Hitzarmena), hurrengo estipulazioei jarraituz,

ESTIPULAZIOAK:

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea

ZARAUZKO HIRUBUSA SLk konpromisoa hartzen du Zarauzko Udalak eta Garraioaren Lurralde Agintaritzak gaurko egunez sinatutako "GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO GARRAIO PUBLIKO KOLEKTIBOAN TARIFAK INTEGRATZEKO SISTEMAREN LANKIDETZA-HITZARMENEAN" adostutako tarifak integratzeko sistema arautzen duten terminoak eta baldintzak betetzeko, eta, beraz, administrazio publiko horiek tarifak integratzeko sistemari buruz hartzen dituzten akordioak eta erabakiak lotesleak izango dira ZARAUZKO HIRUBUSA SLrentzat.

Hori horrela izanik, ZARAUZKO HIRUBUSA SLk tarifak integratzeko sistema arrakastaz gauzatzeko behar diren ahaleginak egin beharko ditu, eta horretarako beharrezkoak diren barneko eta kanpoko jarduketak egingo ditu.

Kontuan izanik (i) II. azalpenean aipatutako hitzarmena esparru orokorra dela, tarifak integratzeko sistemaren oinarritzko zehaztapenak finkatzen dituen aldetik, eta (ii) tarifak integratzeko sistemaren beraren zehaztapen zehatza eta garapena Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrak ezartzen duela, aipatutako Batzar Orokorrak gai horietan har ditzakeen akordioak onartu eta betetzeko konpromisoa eta obligazioa hartzen ditu ZARAUZKO HIRUBUSA SLk.

BIGARRENA.- Txartel bakarra onartzea eta zerbitzua ematea

ZARAUZKO HIRUBUSA SLk txartel bakarra onartzen du Zarautzen eskaintzen duen hiri-garraio publikoaren zerbitzuan.

Beraz, ZARAUZKO HIRUBUSA SLk garraio-zerbitzua eskaintzen dio txartel bakarra duen erabiltzaile orori, baldin eta bere ibilgailuetan txartela behar bezala balioztatzen badu.

